

[Eusk/Cast] Klase feminismoko inguruko jardunaldien harirako elkarrizketa

LA HAIN - EUSKAL HERRIA :: 31/08/2021

La Hainetik JARKI antolakundeko emakume militanteekin hitz egin dugu jardunaldi horien edukira hurbiltzeko:

[Euskara]

JARKI antolakunde iraultzaileak klase feminismoari buruzko jardunaldiak deitu ditu irailaren 4rako eta 5erako, Gasteizen, Aldabe gizarte etxeen. Jardunaldi hauek joan zen urtean antolakunde iraultzaileak burututakoen jarraipena ditugu. Hala ere, iazko jardunaldiak bertan behera utzi zituen, bigarren egunean Igor Gonzalez Sola preso politikoaren erailketari erantzuna emateko antolatutako mobilizazioetara batzeko. Gauzak horrela, aurtengoak lehengo urtean bertan behera geratutako egitarauari eutsiz planteatzen ditu JARKI antolakunde iraultzaileak.

La Hainetik JARKI antolakundeko emakume militanteekin hitz egin dugu jardunaldi horien edukira hurbiltzeko:

Zein helbururekin antolatu dituzue klase feminismoaren inguruko jardunaldiak?

Emakume langileak gaur egun oraindik bizi duen zapalkuntza egoera dela eta, beharrezkoa iruditu zaigu afera hau klase perspektibatik abiatuta ezagutzen ematea eta horretaz jabetzea. Izan ere, JARKI antolakunde iraultzailearen helburu estrategikoen artean kokatzen dugu emakume langileon zapalkuntza forma guztiak gainditzea eta, bide horretan, gai hau lantzea eta kontzientzia garatzea ezinbesteko urratsa dela deritzogu.

Ildo horretatik, antolatutako jardunaldiak eztabaidea eta kontzientziaziorako esparruak zabaltzen hasteko abiapuntu interesgarria direla deritzogu. Horregatik, hauetan gaur egun Euskal Herriak bizi duen testuinguruari bai formakuntza zein klase feminismoaren lanketa burutzerako orduan aproposak diren gaiak jasotzen saiatu gara, ahalik eta egitarau osotuena eskainiz, formakuntza eta parte hartzea errazteko formaturik egokienak planteatzeko ahalegina egin dugularik.

Zertan datza emakume langilearen auzia?

Kapitala, emakumeen eta gizonen arteko dominazio erlazioak sustatuz, emakume langilearen jardun birproduktiboa kontrolatzeaz arduratu da. Gauzak horrela, birproduksio sozialaz ari garenean, ulertu behar dugu esplotazioa oinarri duen klase gizartearren iraupena bermatzeko lan-indarra uneoro eskuragarri egotera bideratuta dauden emakume langileari esleituriko zereginez ari garela.

Birproduksio soziala hiru arlotan banatzen da. Lehenik eta behin, zaintza lanak ditugu edo, bestela esanda, ekoizpen prozesuan parte hartzen duten langileek beraien lan-indarra baldintza egokietan saltzeko dituzten beharrizan fisiko zein psikologikoak asetzeko

jarduerak, horien artean, janaria prestatzea eta arropa garbitzea. Era berean, emakume langilearen gain geratzen da zuzenean ekoizpen prozesuan parte hartu ez arren langile klasearen parte diren kideen, adinekoen, ezgaitasunen bat dutenen, haurren... biziraupenerako beharrezkoa den zaintzen ardura ere. Azkenik, kapitalak emakume langileak buruturiko zaintza lana ez ezik, honen ugaltzeko gaitasuna edo birprodukzio biologikoa ere baliatzen du etorkizuneko lan-indarraren jarraipena bermatzeko, gogoan eduki behar baitugu ekoizpen prozesua ez gelditzeko lan-indarra etengabe eskuragarri egotea behar duela sistema kapitalistak.

Horrez gain, kapitalak emakume langilea arlo produktiboan parte hartzera ere bultzatzen du, betiere, zaintza lanetatik salbuetsi gabe, ahalik eta etekin maila handiena lortzeko helburuarekin. Era horretan, lan birproduktiboa eta produktiboa uztartzea lortzen du kapitalak.

Zein da JARKI-rentzat klase feminismoaren definizioa?

Emakume langilea langile klasearen parte denez gero, honek pairatzen duen azpirazioa langile klaseak bizi duen esplotazio eta zapalkuntza egoerarekin era zuzenean lotuta dago. Hala, zapalkuntza zehatz hau klase gatazkatik eratorria den heinean, klase perspektibatik jorratzea bermatzen duen feminismotik landu beharra dago, klase feminismotik, alegia.

Esan bezala, kapitalak interes berezia du emakume langilearengan honek jokatzen duen paper birproduktiboarengatik, honek sistema kapitalistaren pean pairatzen duen azpirazio egoera berezkoa duelarik kapitalak. Egoera horren aurrean, sistema ekonomikoa iraultzea da aukera bakarra, soilik horrela eratuko baitira emakume langilearen zein langile klasearen askatasuna eta berdintasuna lortzeko baldintza materialak.

Zentzu horretan, beharrezko ikusten dugu zapalkuntza espezifiko honen aurkako borroka klase ikuspuntu oinarri duen proiektu integral baten baitan lantzea, planteamendu honek beste borroka esparruekin batera prozesu iraultzailean uztartzeko aukera ematen digu eta.

Hitzaldietako bat XX. mendean zehar emakumeak biritako zapalkuntzaren eta borrokaren inguruko ikuspegি historikoari buruzkoa da. Zuen ustez, aldatu al dira emakume langilearen zapalkuntzaren baldintzak ordutik gaur egunera arte?

Errealitateak etengabeko mugimendu eta aldaketa ditu oinarri, sexu-genero zapalkuntza era zehatzetan garatzen delarik ekoizpen modu bakoitzean. Hori dela eta, emakume langileak pairatzen duen zapalkuntza sistema kapitalistaren unean uneko beharrizanen arabera aldatuz joan da.

mende hasieran emakume langilearen lana bereziki zaintza esparrura mugatuta bazegoen ere, bai gerrari zein ekoizpenari zegozkien beharrizan ezberdinak zirela eta, honen lan munduratzea eta ekoizpen prozesuko zuzeneko parte hartzea sustatu zen gerora. Izan ere, testuinguru horretan, kapitalak, emakume langilearen lepora etekin ekonomikoa areagotzeko aukeraz jabetuta, hau produkzioan modu masiboan parte hartzera bideratu zuen. Horren ondorioa da etxearen esparruan zaintza lanetan soilik diharduen emakume langilearen ordez, gaur egun, bai ekoizpen prozesuan zein lan birproduktiboan aritzen den emakume langilearen figura nagusitzea. Horrela, kapitalak birprodukzioaren kostuak

murritztea eta esplotazio maila areagotzea lortzen du.

Emakume langileek Euskal Herriko langile borrokari egindako ekarpenaren inguruko mahaingurua egingo duzue. Zuen ustez, nolako garrantzia du ekarpen horrek?

Ezinezkoa da emakume langilearen borroka langile klasaren borrokatik erauztea, honek ezinbesteko papera jokatu baitu langileriak aurrera eramandako edozein borroka zein prozesu iraultzaletan. Euskal Herrian emandako borroka ezberdinak horren adibide ditugu, emakume langileak lehen lerroan egon baitira hauetan. Klase feminismoaren inguruko jardunaldietako mahai ingurua parte hartze aktibo horren erakusgarri dugu. Izan ere, bertan egongo diren emakume langileak 1976ko Martxoaren 3an, garbiketaren sektorean zein adinekoen egoitzetan aurrera eramandako borroketan aritu dira.

Zergatik uste duzue baliagarria izan daitekeela hiri edo herri baten analisi feminista?

Sexu-genero zapalkuntza hirien antolaketan bertan ere hauteman daitekeen elementua da. Izan ere, hirien planteamendu eta ordenamenduari erreparatuta, sistema kapitalistak emakume langileari gizartean esleitzen dion papera antzeman daiteke era argian. Horregatik, klase feminismoaren ikuspuntutik egindako hirien eta herrien analisia beharrezkotzat jotzen dugu, antolaketa ereduak emakume langilearen egunerokotasunean jokatzen duen papera ikusarazi eta agerian uzteko.

Zer suposatu zuen emakume sobietarren borrokak garaiko testuinguruan?

Emakume sobietarraren ekarprena Errusiako Iraultzak eta Sobietar Batasunak emandako aurrerapausoen eta egindako ekarpenen baitan kokatu behar dugu. Ekarpen hauek izaera kualitatiboa izan zuten, oraindik ere emakume langileek pairatzen duten sexu-genero zapalketari dagokionez. Bertan koka ditzakegu dibortzioaren eskubidea, bozkatzeko eskubidea, abortu eskubidea...

Hori ikusita eta jardunaldietan gai honi dagokion hitzaldia kontuan hartuta, ez da harritzekoa Sobietar Batasuneko emakume langileek Bigarren Mundu Gerran, erretagoardiaz haratago, gudu-zelaian faxismoari aurre eginez burututako paper aktiboa. Gaueko sorginak, emakume sobietarrek zein Sobietar Batasunak sexu-genero zapalkuntzari aurre egiterako orduan erdietsitako lorpenen beste adierazgarri bat besterik ez direlarik.

Zer zapalkuntza espezifiko bizi izan dituzte emakumeek espeluetan?

Espelue sistemaren gutxi dira emakumeentzat espresuki diseinatutako presondegiak. Normalean, gizonezkoentzat diseinatutako espelueen baitako modulo isolatuak izaten dira emakumeenak. Zer esanik ez, horrek modulo hauek getoaren baitako geto gisa funtzionatzea dakarrela, bertako bizimodua, ordutegiak, ekintzak zein osasun zerbitzuak errealitate horren menpe eta baldintzaapean daudelarik. Egoera horrek, aisialdia, protestarako aukera, presondegiarekiko komunikazio kanalak edota ginekoloarengana jotzea bezalako beharrizanak, preso dauden emakumeen kasuan, espeluearen begietan bigarren mailako kontuak izatea dakar.

Zuen iritziz, zein izan behar da Euskal Herriko emakume langileek bizi duten zapalkuntzari aurre egiteko bidea?

Edozein zapalkuntzari aurre egiteko bide bakarra antolakuntza da. Hori dela eta, Euskal Herrian eman beharreko prozesu iraultzailea eta hau bururaino eraman behar duen alternatiba iraultzaileak, emakume langileak pairatzen duen zapalkuntza orori aurre egiteko markoak eta tresnak eskaini behar ditu, klase feminismoaren lanketa ahalbidetuz, sustatzetako bere estrategiaren baitan txertatuz. Izan ere, langile klaseak bere osotasunean pairatzen duen zapalkuntza bakoitza, bere kasuistika zehatza aintzakotzat hartuz era espezifikoan landu behar den arren, bere osotasunean planteatu eta borrokatu beharra dago. Borroka baten lanketa isolatuak, hauei klase izaera erautzeko arriskua suposatzeaz gain, gainerako zapalketa formen betikotzea suposa baitezake. Azken finean, sistema kapitalistaren aurreko borrokan arazoei errotik erantzuten dieten izaera integraleko planteamenduak behar dira.

Hori lortzeko bidean, JARKI antolakunde iraultzaileak, Gasteizko Aldabe gizarte etxearen irailaren 4an eta 5ean antolatutako klase feminismoaren inguruko jardunaldiak aurrerapauso txiki bat izatea espero du. Borroka ideologikorako antolakunde gisa, egungo Euskal Herriko testuinguru politikoan klase feminismoari dagokionez egin dezakegun ekarpena, alternatiba iraultzailearen baitan hau aurrera eraman behar duten bitartekarien gauzatzea ahalbidetzeko baldintzak errotzen laguntzea da.

[Castellano]

La organización revolucionaria JARKI ha organizado unas jornadas sobre feminismo de clase en el centro cívico Aldabe de Gasteiz los días 4 y 5 de septiembre. Estas jornadas son una continuación de las realizadas por la organización revolucionaria el año anterior. JARKI suspendió las jornadas del año pasado el segundo día para sumarse a las movilizaciones en respuesta al asesinato del preso político Igor González Sola. Es por eso, que la organización revolucionaria plantea las jornadas de este año en un formato para dar continuidad al programa que se suspendió el año pasado.

Desde La Haine hemos hablado con las militantes de JARKI sobre el contenido de dichas jornadas:

¿Con qué objetivo habéis organizado las jornadas sobre feminismo de clase?

Debido a la opresión que padece todavía, hoy por hoy, la mujer trabajadora creemos que esta cuestión debe abordarse partiendo de una perspectiva de clase. Ya que, la superación de toda forma de opresión que sufre la mujer trabajadora está enmarcada dentro de los objetivos de la organización revolucionaria JARKI, esta ve que concienciar y trabajar entorno a este tema es algo imprescindible.

En esa línea creemos que las jornadas que hemos organizado son un punto de partida interesante para empezar a abrir espacios para el debate y la concienciación. Es por eso, que hemos intentado ofrecer un programa lo más completo posible, haciendo un especial esfuerzo en plantear los formatos más apropiados para facilitar tanto la formación como la participación. Para eso, hemos escogido los temas que creemos más apropiados a la hora de

fomentar la formación y el feminismo de clase, partiendo del contexto que vive hoy en día Euskal Herria.

¿En qué consiste la cuestión de la mujer trabajadora?

El capital se ha encargado de controlar la actividad reproductiva de la mujer trabajadora, fomentando las relaciones de dominación entre hombres y mujeres. Es por eso, que debemos entender que cuando nos referimos a reproducción social, estamos hablando de las tareas que se le encomiendan a la mujer trabajadora para garantizar la disponibilidad en todo momento de la fuerza de trabajo necesaria para la continuidad de la sociedad de clases basada en la explotación.

La reproducción social se divide en tres ámbitos. En primer lugar tenemos las actividades como preparar la comida y limpiar la ropa destinadas a satisfacer las necesidades físicas y psicológicas de los trabajadores que forman parte del proceso productivo, para que estos puedan seguir vendiendo su fuerza de trabajo en buenas condiciones, dicho de otra manera los trabajos destinados a los cuidados. De la misma manera, a la mujer trabajadora le corresponde la responsabilidad de los cuidados de todos aquellos que sin formar parte directa en el proceso productivo son miembros de la clase trabajadora, las personas de edad avanzada, las personas que tienen algún tipo de discapacidad, los niños... Por ultimo, el capital no solo se vale de los cuidados desempeñados por la mujer trabajadora, sino que también instrumentaliza la capacidad reproductiva o de reproducción biológica de la misma para garantizar la renovación generacional de la fuerza de trabajo, puesto que, hemos de tener en cuenta que el sistema capitalista necesita tener a su disposición de manera constante fuerza de trabajo para que no se detenga el proceso productivo.

Ademas de esto, el capital fomenta la participación de la mujer trabajadora en el plano productivo, eso si sin dispensarla de los trabajos de cuidado, con el objetivo de maximizar sus beneficios. De esa manera el capital consigue aunar el trabajo productivo y reproductivo.

¿Cuál es la definición de feminismo de clase para JARKI?

Dado que, la mujer trabajadora es parte de la clase trabajadora, la dominación que padece tiene relación directa con la situación de explotación y opresión en la que vive sumida la clase trabajadora. Es por eso, que esta opresión de carácter específico, al tener su origen en la lucha de clases, ha de trabajarse desde un feminismo que aborde la perspectiva de clase, es decir, ha de trabajarse desde el feminismo de clase.

Como hemos dicho anteriormente, el capital tiene un interés especial en la mujer trabajadora por el papel reproductivo que esta desempeña, siendo la situación de dominación que padece en el sistema capitalista propia del mismo. Ante esta situación, la única opción es dar un vuelco al sistema económico, ya que únicamente de esta manera se conseguirán las condiciones materiales para garantizar la libertad y la igualdad, tanto de la mujer trabajadora como de la clase trabajadora.

En ese sentido, vemos necesario desarrollar la lucha contra esta opresión específica dentro de un proyecto de carácter integral basado en una perspectiva de clase, ya que entendemos

que esta es la única manera de aunar los distintos espacios de lucha dentro del proceso revolucionario.

Una de las charlas es sobre la perspectiva histórica de la opresión padecida y la lucha realizada por la mujer trabajadora durante el siglo XX ¿Creéis que han cambiado las condiciones de la opresión de la mujer trabajadora desde entonces?

La realidad esta sumida en el movimiento y cambio continuo, es por eso que la opresión sexo-genero se desarrolla de forma concreta en los distintos modos de producción. De ahí que, la opresión que padece la mujer trabajadora ha ido cambiando a merced de las necesidades que el sistema capitalista ha tenido en cada momento.

Aunque a principios del siglo XX el trabajo de la mujer trabajadora se circunscribía al ámbito de los cuidados, a causa de las guerras y de las distintas necesidades productivas, a posteriori se ha ido fomentando su integración en el mundo laboral y su participación de forma directa en el proceso productivo. Ya que, en este contexto el capital siendo consciente de la posibilidad de aumentar su beneficio económico a costa de la mujer trabajadora, ha conducido a esta a participar de forma masiva en la producción. De esa manera, hoy en día se ha impuesto la figura de la mujer trabajadora que se desenvuelve tanto en el ámbito productivo como reproductivo, en lugar de la mujer que se ciñe única y exclusivamente a las labores de cuidados del ámbito doméstico. De esa manera el capital ha conseguido reducir los costes de reproducción y aumentar el nivel de explotación.

Vais a realizar una tertulia sobre la aportación que ha realizado la mujer trabajadora a la lucha obrera de Euskal Herria . ¿Cuan importante creéis que ha sido dicha aportación?

La lucha desempeñada por la mujer trabajadora va unida a la de la clase obrera, ya que esta ha jugado un papel imprescindible en todas las luchas y procesos revolucionarios desarrollados por el proletariado. Las luchas llevadas a cabo en Euskal Herria son un ejemplo de esto, puesto que la mujer trabajadora ha estado en primera línea en las mismas. El coloquio de las jornadas feministas es un reflejo de esa participación activa, ya que las mujeres trabajadoras que van a estar en el mismo han participado en la lucha llevada a cabo el 3 de marzo de 1976, en el sector de la limpieza y en las residencias.

¿Por qué creéis que puede resultar útil el análisis feminista de un pueblo o una ciudad?

La opresión de sexo-genero es un elemento que puede percibirse también en lo que a la organización de las ciudades se refiere. Puesto que, al analizar el planteamiento y ordenamiento de las ciudades podemos percibir de una manera clara el papel que le asigna en la sociedad el sistema capitalista a la mujer trabajadora. Es por eso, que creemos que es necesario realizar un análisis de nuestro pueblo y ciudades desde una perspectiva de feminismo de clase para vislumbrar y dejar al descubierto el papel que juegan en la vida diaria de la mujer trabajadora sus distintos modelos organizativos.

¿Qué supuso la lucha de la mujer soviética en el contexto de su época?

Hemos de enmarcar la aportación de la mujer soviética dentro de los avances y aportaciones realizadas por la revolución rusa y la Unión Soviética. Esas aportaciones tuvieron carácter cualitativo en lo que respecta a la opresión que aún, a día de hoy, padece la mujer trabajadora en cuanto a la opresión de sexo-género. Por mencionar algunas tendríamos el derecho al divorcio, el derecho al voto, el derecho al aborto...

Es así que, y tomando en cuenta el discurso sobre este tema que se abordara en las jornadas, no es de extrañar que en la Segunda Guerra Mundial las mujeres trabajadoras de la Unión Soviética, más allá de las labores de retaguardia, tuvieran un papel activo frente al fascismo en el campo de batalla. Por lo que, las brujas de la noche no son sino otra muestra mas de los logros tanto de la mujer soviética como de la Unión Soviética, en lo que a la superación de la opresión sexo-género se refiere.

¿Qué opresión específica padecen las mujeres en la cárcel?

Para empezar, son pocas las prisiones del sistema penitenciario diseñadas expresamente para mujeres. Normalmente, a las mujeres se las destina a módulos aislados dentro de cárceles diseñadas para hombres. Ni que decir tiene que, eso hace que estos módulos funcionen como ghettos dentro del ghetto, haciendo que tanto la vida diaria, los horarios, las actividades como los servicios sanitarios estén a merced y condicionadas por esta realidad. Esta situación hace que necesidades como el ocio, las protestas, los canales de comunicación con la cárcel o hasta el ginecólogo queden relegados a un segundo plano a ojos de la prisión.

¿Cuál es en vuestra opinión el camino para que las mujeres trabajadoras de Euskal Herria hagan frente a la opresión que padecen?

El único camino para hacer frente a cualquier tipo de opresión es la organización. Es por eso que, tanto el proceso revolucionario que debe desarrollarse en Euskal Herria como la alternativa revolucionaria que debe llevarlo a término, tienen que ofrecer marcos y medios para hacer frente a cualquier opresión que padezca la mujer trabajadora. Para eso, deben hacer posible abordar un trabajo en parámetros de feminismo de clase, fomentando el mismo e integrándolo en su estrategia. Ya que, toda opresión que padece la clase trabajadora en su conjunto, aunque ha de tomarse en cuenta desde su casuística y trabajarse de manera específica, debe plantearse y abordarse desde una perspectiva integral. Puesto que, el desarrollo de una lucha de una manera aislada, además de suponer el riesgo de despojar a esta de su carácter de clase, puede suponer la perpetuación del resto de formas de opresión. A fin de cuentas, la lucha contra el sistema capitalista necesita planteamientos que respondan a los problemas de raíz.

En ese sentido, la organización revolucionaria JARKI espera que las jornadas sobre feminismo de clase organizadas en el centro cívico Aldabe de Gasteiz, el 4 y 5 de septiembre, supongan un pequeño paso en esa dirección. Como organización para la lucha ideológica la aportación que podemos realizar, en el contexto político actual de Euskal Herria, en lo que al feminismo de clase se refiere, es ayudar a asentar las condiciones para la materialización de los instrumentos que deben desarrollarlo dentro de la alternativa revolucionaria.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-klase-feminismoko-inguruko>